

EDIZIOA ETA MUNTAKETA I

Ikus-entzunezkoetan narrazioa eraikitze prozesua:

1. Gidoi literarioa
2. Planifikazioa: gidoi tekniko
3. Grabazio plangintza
4. **Muntaketa/edizioa:**
 - **Hartze egokia aukeratu**
 - **Planoak elkarren ondoan jarri**
 - **Muntaia landu eta orraztu**
5. Irudi postprodukzioa
6. Soinua aldi berean eta ondoren muntatu
7. Soinu postprodukzioa

Edizioa eta muntaketaren bereizketa

Teknika eta ikus-entzunezko narrazioa bereiztearen funtsak zineman eta telebistagintzan urteetan egon den langileen funtzioen banaketan dauka oinarria.

Historikoki telebistagintzan “edizioa” eta zineman “muntaketa” erabili izan da.

Muntaketa lana

- Askotan editoreek erabaki estetiko eta narrazioak hartzen dituzte; hau da, edizio teknikak erabiltzeaz gain, mezuren edukian eta estetikaren erabakiak hartzen dituzte
- Ikus-entzunezko edizioa hainbat sektoretan aurkitu dezakegu: argazkigintzan, informatikan...
- Azken urteetan sektore hauen arteko mugak desagertu egin dira eta komunikazio-langileak edizio lanak egitera behartuta daude: kazetariak, informatikoak, diseinatzaileak...
- Muntatzailea/editorea, teknikaria bada ere, sortzaile lanak ere egingo ditu Zuzendari edo errealizadorearekin batera, diskurtso artikulatu eta zehatz bat osatuko dute

Muntaketa. Definizioa

- Sormen prozesua da
- Ikus-entzunezko osagaien joskera da
- Ikus-entzunezko pieza baten indarra eta erritmoa muntaketaren/edizioaren arabera izango da
- Errealitatean existitzen ez diren denbora eta espazioak asmatu daitezke
- Muntaketaren prozesuan:
 - Planoen arteko harremanak eraikitzen dira
 - Soinu bana eraikitzen da
 - Irudi eta soinuen arteko harremana eta elkarrizketa lantzen dira
- Planifikazioa, errealizazio banakatzeak eta eszenaratzea muntaia kontuan hartuz egiten dira. Muntaiaren gidoi teknikoan aurreikusitakoari behin betiko forma ematen zaio. Hau da, muntaia presente dago aurreprodukzio eta produkzio faseetan ere
- Muntaketak hiru helburu mota izan ditzake:
 - Narratiboa
 - Adierazlea
 - Deskribatzailea

Eredu klasikoa

- Eredu erabiliena zinema, telebista eta ikus-entzunezko ekoizpen narratiboetan
- Helburua: kontakizuna ikuslearen begien aurrean garatuko balitz bezala aurkeztea. “Errealitatearen ilusioa” birsortzen du
- Narrazio “errealista” baten menpe dago
- Gertaerak eta pertsonaien ekintzak modu jarraikorrean aurkezten dira
- Planoen kateatzea:
 - Plano bakoitza kate baten unitatea da
 - Plano bakoitzak katean funtzio narratiboa du
 - Ez dago planoen arteko jauzi edo hausturarik
- Jarraitutasunaren arauak betetzen dira

Anti narratiboa

Adibidea: *À bout de souffle*, Jean-Luc Godard (1960): amaierako eszena

<https://www.youtube.com/watch?v=vp6f4bnQ-aQ>

Muntaia motak

- Ekoizpen moduaren arabera:
 - Barne muntaia: laukiaren barruan egin daitezkeen aldaketak: eremu sakonerarekin jolastuz, kamera mugimenduekin...
Adibidez: VICTORIA clip 1- Robando cervezas
<https://www.youtube.com/watch?v=Gjiw1QQAUCY>
 - Kanpo muntaia: ikuspuntu ezberdinetako planoak uztartzen dituen
Adibidez: Eisenstein. Acorazado Potemkim: escalera Odessa
<https://www.youtube.com/watch?v=8ORUQvD6qyQ>
- Denbora-jarraikortasunaren arabera (honen apunteak “Jarraikortasuna II” dokumentuan)
- Esanahiaren arabera:
 - Narratiboa: helburua ekintza bat kontatzea da
 - Deskribatzailea: ekintzen alde fisikoak kontenplatzea laguntzen du
El laberinto del fauno
<https://www.youtube.com/watch?v=WtRRLqmVk4k>
 - Adierazkorra: ikuslearengan efektu bat eragin nahi du
Apocalypse Now
<https://www.youtube.com/watch?v=E-QefTioe3I>
 - Sinbolikoa: ideologikoa ere deitu ohi da. Sinbolo, keinu, etab.-etan oinarriturik, emozioak sorrarazi nahi ditu
Lawrence of Arabia
<https://www.youtube.com/watch?v=Ypul7nPcMII>

Muntaketaren puntuazio marka batzuk:

- Mozketa
- Iraungipenak
- Izoztutako irudia
- Barridoa
- Gortinak